

BONBARDAKETA ▶

Bonbardaketaren 70. urteurrena betetzen den honetan, inoiz komunikabideetan agertu ez diren lekukoen testigantzak jaso nahi izan ditu BUSTURIALDEKO HITZAK; izan ere, hainbat dira anonimatoan egun hura samintasunez gogoratzen duten bizilagunak ERREDAKZIOA

FELIX BENGEOA ▶ LEKUKOA

«Horrelakoak ez dira inoiz ahazten»

Samintasunez gogoratzen du Felix Bengoak bonbardaketaren eguna

MAITE ORUE

Pasealekuan harrapatu zuen Felix Bengoa (Gernika, 1926) bonbardaketako lehen bonbak. Hurbili zuen babeslekua. (zorionez)

Nola gogoratzen duzu bonbardaketaren egun hura?

Goizetik zebilen sirena eta kanpai hotsa. Lagun batez Pasealekuan pengoala erori zen lehenengo bonba. Pasealekuko hiru babeslekuetako batean

sartu ginen, erdikoan. Jendez gainezka zegoen. Bonba bat erortzen zen bakoitzean sabaiaren zatlak erortzen zitzaizkigun gainera. Bertan egon ginen bonbardaketa amaitu zen arte, 20:00ak edo 20:30ak arte. **Eta zuro senideak?**

Ama eta hiru arreba erdiko kaleko babeslekuetako batera sartzen ahalegindu ziren. Eskerrak ezin izan zutela sartu, bonba baten ondorioz erori egin baitzen eta barruan ziren

guztiak hil baitziren. Udaletxe-ko babeslekuan sartu ziren, baina aurreko aldean bonba bat erori zen eta atera ezinik gelditu ziren. Alberto Urrutiak kanpoko aldetik leiho bat zabaltzea lortu zuen arte. Aita, berriz, Astrako bunkerrean babestu zen, bertan baitzegoen beharrean. Beste anaia bat Lekeition zegoen eta ez zuen bonbardaketa bizi izan.

Bonbardaketa amaitu zenean zer egin zenuten?

Denak atera ginen gure senideak bilatzen. Jendez gainezka zuden kaleak, denak senideak bilatzen alde batetik bestera arineketa.

Zer egiten duzu urteurren-an?

Beti izaten dut egun hura go-goan, horrelakoak ez dira inoiz ahazten eta. Dena den, zortea izan nuen, nire familiak ez baitzen bonbardaketan hil. Biktimen omenez egiten den ekitaldira joaten naiz urtero. ◀



MAITE ORUE

ELENA UGALDE ▶ LEKUKOA

«Gizonak ikusi genituen sutan erretzen»

Hamasei urte zituen bonbardaketa egunean; euren ama metrallaz zauritu zuten

ZIHARA ENBEITA

1937an neska zegoen Elena Ugalde (Muxika, 1921) Gernikako etxe batean. Bertan erre ziren bere arropa eta gainerako guztiak.

Non harrapatu zintuen bonbardaketak?

San Juan Ibarri, dendara joaten. Handik San Juan Ibarriko elizara joan ginen. Arriskutsua zela eta handik alde egiteko esan zigun gizon batek. Erdiko

kaleko babeslekura joan ginen. Jesuiten azpian zegoen.

Zelan gogoratzen dituzu babeslekuko orduak?

Denok konfesatzen, negarrez... Han geundela erdiko kaleko beste babeslekua suntsitu zuten. Arriskua gutbitzean, kanpora irten eta gizonak ikusi genituen sutan erretzen, pisuetan, jaguntza eske. Ezin zituen inork lagundu. Gernika osoa ketan... Hura bai izan zela tristea. Lotsagarria izan zen.

Eta handik?

Lumora joan behar izan genuen, hilen ganetik. Bertako abadeek afaria eman ziguten eta lo egiteko lekua. Jende asko batu ginen han. Goizeko laurak inguruan ohetik altxatu eta alde egiteko esan ziguten, mendi batetik bestera kontrazeinuak egiten zebiltzala eta. Neska zegoen nintzen etxea ikustera joan nintzen. Suntsituta zegoen. Handik Kanpan-txura ugazaba andrea ondo

zegoen ikustera. Gero Muxikara amarengana. Bidean gurdiakin eta ihes egiten zebilen jendea topatu nuen.

Eta zer topatu zenuen etxean?

Ama metrallaz zauritu zuten Ibarri eta txarto zegoen. Hiru aizpen artean zaindu genuen. Trenbideko tunelean babes-ten ginen eta luuntzetan gaudarentzat belarra ebaki. Kordainaren dizdira ikusi eta tiro egiten ziguten. ◀



ZIHARA ENBEITA

MARTIN ELORRIAGA ▶ LEKUKOA

«Gauean amuma ez zen etxera bueltatu»

Muxikan zen bonbardaketaren unean, eta mendira jo zuen hegazkinak ikustera

OIHANA CABELLO

Biloba beso artean, begirada galduta duela gogoratzen du Martin Elorriagak (Muxika, 1923) Gernika bonbardatu zuten astelehen hura.

Non zinen lehenengo bonbak Gernika gainean jausi zirenean?

Mendatarako puntan. Hegazdikak ni baino beheago pasatzen ziren. Urribotik ikusten nituen, eurak baino gorago egon

nintzen ni. Pinu artean izkutatuta nintzen.

Zerbat urte zantuen?

Ba, hamabi hamairu urte izango nituen, hamairu.

Zer egiten zenuen Mendatan? Bonbardaketaren mehatburik izan al zen lehenago?

Ez. Lagun koadrila bat geunden Muxikan eta hegazkinak ikusten genituen hura eta hona. Horregatik, horiek ikustearren, Mendatarantz jo ge-

nuen. Horiek ikusteagatik, guk ez genekien ezer.

Eta zerbat denbora egin zenuten han, pinu artean?

Alde egin zuten arte hantxe egon ginen, hegazkinei begira.

Beraz, bonbak Gernikan jaustean sortutako kerik edo surik ez zenuten ikusten.

Ez. Gu ginen lekutik ez zen ezer ikusten. Sua geroago izan zen, gau partean. Ordurako gu etxean geunden.

Noiz konturatu zinen Gernika bonbardatu zutela?

Gauean bertan jakin nuen, gure amuma ez baitzen etxera bueltatu. Azokara joan zen astelehen horretan [Gernikara]. Orain ambulatoia dagoen lekuan, han azpian zegoen errefugio batera jo zuen berak. Baina bonbardatu egin zuten eta han bertan hil zen. Astoa bal, etxera bueltatu zen astoa baina bera bakarrik, amuma barik. ◀



OIHANA CABELLO